

BEZEROEKIKO HARREMANAK

- Gure produktuari dagokionez, hasteko, gure bezeroekin nolako harremana ezartzea nahi dugun aztertuko eta zehaztuko dugu: Noski, gure bezeroekin ahalik eta harreman hoberena nahi dugu, eta horretarako, gure traturik hoberena emango diogu, ahalik eta atseginenak izanez eta ahalik eta zerbitzurik hoberenak emanez. Harreman motari dagokionez, dakigunez, hainbat mota daude, eta gure produkturako, harreman-mota hauek erabiliko ditugu: Laguntza pertsonal eskainia (hau da, guk pertsonalki eskainiko dugu laguntza euritakoa konpontzeko edo bezeroek dituzten arazoak konpontzeko) eta Zerbitzu automatizatuak (hau da, adibidez, euritakoa automatikoki zabaltzea botoi baten bidez euria egiten ari denean)
- Horretaz aparte, gure bezeroek konfiantza izateko guregan, deskontuak egingo ditugu (3 euritakoak erosi ondoren, %40ko deskontua), salmenta ondorengo zerbitzuak emango ditugu eta ahal den kasuetan, euritakoak konponduko ditugu apurtzen badira (bezeroak pozik egoteko).
- Bezeroekiko harremanekin amaitzeko, ere esan behar dugu ez dela behar gure denda fisikora joatea, gure webgune orrian txakurrentzako aterki mota guztiak izango dituzue eskuragarri, gehienak prezio berean (salbuespenak egon ahal dira) eta bidalketa-gasturik gabe



